



# Osasuna Politika Guztietan

**BATZORDE TEKNIKOA**



Txosten  
sektoriala **2020**

**Ekonomia**

2022ko otsailaren 7an



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Euskadiko Osasun Plana 2013-2020 izenekoak Euskadiko osasun sistemaren antolaketa eta funtzionamendu printzipio pragmatikoak izan ditu oinarri (Antolamendu Sanitarioaren Legea, 8. art.), osasun zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko. Printzipio horien artean, funtsezkoa da prestazio sanitarioen katalogoa diru publikoz finantzatzeko esparrua nahikoa izatea.

Zalantzarik gabe, ezinbestekoa da baliabide ekonomiko nahikoak edukitzea Euskadiko Osasun Sistemaren kalitatezko asistentzia bermatzeko eta horren iraunkortasuna ziurtatzeko.

Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzarentzat lehentasun dira osasun politikak, 2020ko ekitaldirako onartutako aurrekontuetatik ondoriozta daitekeenez, hiru eurotik bat osasunerako izango baita.


Txosten honekin batera doazen datuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Proiektua egitean kontuan hartu zirenak dira. Ildo horretan, **Osasun Sailaren zuzkidura ekonomikoa 3.941.455.000 eurokoa da, hau da, %3,7 handiagoa**, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren herena eta **pertsonako 1.801 €-ko gastua**; aurreko urtean 1.730 €-koa izan zen.

Osasun Sailaren lehentasunak dira osasun arloko desberdintasun sozialei aurre egitea, prebentzioaren kultura eta osasunaren sustapena bultzatzea, zahartzearen erronkari aurre egitea, sistemaren iraunkortasuna eta modernizazioa bermatzea, profesionalen konpromisoari eustea, enplegu egonkor eta kalitatezkoa, hizkuntza-normalizazioa, genero-berdintasuna eta osasun-zientzien arloko ikerketa eta berrikuntza.

Horretarako, Osasun Plana 2013-2020, Zainketa Aringarrien Plana 2016-2020 eta Osasun Arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia 2020 zabaltzen jarraitzeko plan eta ekintza zehatzak daude aurreikusita. Bai eta Adikzioen VII. Plana, "Euskadiko elikadura osasungarrirako ekimenak", Haurren artean obesitatea prebenitzeko plana, EAEko Osasun Inkesta, txertaketa-egutegia, haurren

hortz asistentziarako programa, bai eta biztanleentzako osasun programak ere, jaioberrietan sortzetiko gaixotasunen baheketa, bularreko eta koloneko minbiziaren baheketa eta abar, besteak beste, edota Euskadiko Onkologia Plan Integrala eta zerbixeko minbiziaren baheketaren hasiera biztanleen artean.

Hona hemen gastuaren banaketa, milioi eurotan:



Aurrekontuak **garrantzi berezia ematen dio Lehen Mailako Arretari**. 2020ko inbertsioetarako aurrekontua (21 milioi €) **hirukoiztu ez ezik, laguntza-maila hori indartzeko berariaz diseinatutako estrategian** planteatutako neurriak ezartzen jarraituko da.

Era berean, garrantzi handia hartzen du **osasunaren prebentzioak eta sustapenak**. Hala, **txertoetara** zuzendutako partidak **%25,6ko igoera** izan du, 14 milioi eurora iritsi arte, haurren txertaketa-egutegia handitzeko eta nerabeen epe luzerako babesa hobetzeko ezohiko txertaketa bat hasteko, meningokokoaren ACWY anduien aurkako txerto berri bat gehituta.

---

Osasun Sailaren partidarik handiena **Osakidetzara** bideratu da, beste ekitaldi batez, **2.998,6 milioi euro jaso** baititu erakunde sanitarioen eguneroko funtzionamendurako **programa-kontratuaren** bidez (2019an baino **%4,3 gehiago**), **inbertsioetara** bideratutako **69,7 milioi euroez** gain.

Osakidetzaren aurrekontu osotik, **%68,1 pertsonal-gastuetara** bideratuko da, hau da, **%5,1 igoko da** aurreko urtearekin alderatuta, 2019an 2018arekin alderatuta (%4,2) eta 2018an 2017arekin alderatuta (%3,3) lortutako hazkundearen gainera. Lehen Mailako Arreta **indartzeko neurriek** ere badute isla atal honetan, eta **kategoria guztietan egin dute gora**: fakultatiboetan, erizaintzan, langile ez-sanitarioetan eta prestakuntza espezializatuko egoiliarretan.

2020an, **69,7 milioi euro** erabiliko ditu Osakidetzak **inbertsioetarako**; **Lehen Mailako Arretaren** kasuan, **inbertsioa hirukoiztu egingo da** aurreko ekitaldiarekiko. Guztira, **2013tik 2020ra** osasun-sistema publikoan **500 milioi euro inguruko** inbertsioak egiteko aurrekontua dago. Hona hemen 2020rako aurrekontuko partidarik garrantzitsuenak, lurraldez lurralde:

- **Arabian, 15 milioi euro**, Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu orokorren eraikineko obra eta ekipamendua amaitzeko, Murgiako osasun zentro berrirako, eta Arabako Errioxa ESIko birmoldaketetarako.
- **Bizkaian, 11,7 milioi euro** Bilbo-Basurtu ESIrako, Ezkerraldea-Enkarterri Gurutzeta ESIrako eta Galdakao-Barrualde ESIrako, lehen mailako arretako zenbait osasun-zentrotarako, Osasun Mentaleko Sarerako eta Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentrorako partidez gain.
- **Gipuzkoan, 16,4 milioi euro**. Nabarmentzekoa da Lehen Mailako Arretan egindako inbertsioa, baina baita Donostia Unibertsitate Ospitalean egindako inbertsioak ere, Terapia Zelularreko obretarako eta ekipamendurako, Bidasoa ESIko eta Goierri Urola Garaia ESIko bloke kirurgikoak birmoldatzeko inbertsioez gain.
- **Osakidetzako Erakunde Zentralak** inbertsioen %38 kudeatuko ditu (26,6 milioi €) osasun zentroetarako irisgarritasuna hobetzeko, proiektu korporatiboak finantzatzeko eta Osakidetzaren osoko informazio-sistemak finantzatzeko.

Osasun Sailaren aurrekontuan nabarmentzekoa da, halaber, **%6tik gorako igoera** egon dela **Ikerketa eta Berrikuntzaren** arloan, bereziki aipatu behar da I+G+b sanitarioeko erakundeetarako kontu-sailatutako %11,1eko hazkundera eta %4,5eko igoera ikerketa-proiektuen deialdietarako gordetako zenbatekoan.